

# Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1997ko abuztuaren 1a

\*



Matrakaren barrualdea ezezaguna da jende frankorentzako, eta infernua gehientsuendako.

JAGOBA MANTEROLA

## Matraka: oasi ala infernu?

■ Lakuntzan dago, Sakanako haranaren erdi-erdian. Ez da ohiko dantzaleku haietako bat, bertan aditzen den musikak maitasun eta gorrotoak pizten baititu. Sakanaldea tekno musikarentzako basamortu bat omen zen, duela hiru urte Matraka iritsi zen arte. Galaxia ezkuturen batetatik Lurrera etorritako plater hegalaria bat balitz bezala pausatu baitzen Matraka Lakuntzako baratzen ar-

tean. Eta igandero teknoaren tenplura joaten diren erromesez betetzen dira Lakuntzako karririkak, eta herriko populazioa bikoiztu egiten da goizeko zortziretatik aitzinera. Liskarrak piztuta daude honezkero, eta lakuntzarrak mugitzen hasiak dira. Izan ere, -hori bai sakrilegioa!- igande goizetako txikiteorik ez baita egiten jadanik Lakuntzan. ■

### Mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Ibaian behera gindoazela agertu zen herri hutsa. Horma gorri erorietan, eskuz idatzitako txartelean, erregutik ere bazuen gaztigua: «Gauzak daudenean utzi, guztiek jabea dute». Lehenik, ilunabar aldera, jeep zaharkitua iritsi zen, 4 x 4 dirdaitsua minutu batzuen buruan. Azken honetako txoferra zein laguna kamuflaiaz jantzirik heldu ziren eta ibilgailutik jaitsi gabe mintzatu zitzaizkien leihatila ondoraino hurreratuak ziren jeep-eko bi nekazari gazteei. Besteak altxatu eta gero nekazariak besoak uztartuta egon ziren berriketan. Sasiek jandako karriketara jo genuen: «Hobe menditik aparte ibiltzen bazarete, arriskutsua izan daiteke zuentzat», esan ziguten parean pasatzean. Hiru orkatz botatzeko baimena zeukaten. Adarrez mintzatu ginen ibarbasoaren gerizpean.

Hurrengo egunetan dozenaka erbi uxatu genituen gure ibilaldietan, epe-erak hauteman genituen alorrek eta bi-

deak zeharkatzen eta orkatz bat erre-pidea gurutzatzen goiztirian.

Goi-lautadako etxe batean hartu genuen ostatu handik aste batera. Basurdea, oreina, orkatza... eskaini zizkiguten afaltzeko. Bi ehiztari etorri ziren handik gutxira. Kexu ziren kokoek zorrotzegi jokatzeko zutela eta baimen kontuan, isilekoekin izan ezik. Isilekoen tiroen beldur zirela aitortu omen zion behin koko batek ehiztarietako bati.

Guri ostalaria inguratu zitzaigun gero gure bidaiaren helburuaz galdetzeraz. Bazekien ez generamala kamerarik, ez eta gure asmoak iragar zitzakeen beste ezer. Mendiko herri ilunak kurrutu nahi genituela erantzun genion. «Ah, ongi!», esan zigun ongi aukeratu genuela adierazteko imintzioa eginez. Eta orduan deliberatu zuen nonbait guk ere gure proportzioa merezi genuela: «Halako herritan bizi da Mitsubishiaren iragarkiko agurea, badakizue...», y Franco qué

opina de esto...? esaten duena, je, je...».

Ez genituen asmoak aldatu. Bazka-lorduan jo genuen ostalariak aipatu herrira. Karriketara ez zebilen inor, eta ozta-ozta lortu genuen bazkaltzea. Agurreaz oroitu ginen, eta ahopeka mintzatu ginen bazkaltzen genuen bitartean. Arratsaldean laino sartu zen eta euria jori egin zuen. Itzuli eta ohartu naiz ez dudala ezere frogarik. Garaikurrik gabe itzuli gara, ehizakirik gabe, ez larririk, ez xeherik. Ausardia eta gogoa falta izan zaizkigu. Beste lagun bat Parisen izan da. Boulevard batean biziki miresten duen idazle bat topatu omen zuen: «Zure idazlan guztiak irakurri ditut», bota zion lagunak. «Ah, eskerrik asko», erantzun besteak. Lagunak ez zeraman boligraforik eta barreagarri geratu zela esan dit atsekabeturik. Udan esplora-dorearen grinaz abiatzen gara eta ez dakigu ehizean. Agian behingoz galtza motzak jantziko bagenu... X

### Ehizean

**KONTZERTUAK**

**Etxarri-Aranatz:** Blues Thorpes taldeak kontzertua emango du igandean, abuztuak 3, gaueko 22:00etan.

**Elizondo:** Ganbara taldeak kontzertua eskainiko du datorren ostegunean, Kultur 97 programaren barruan. Emanaldia Kultur Etxean izanen da, arratsaldeko 20:30etan.

**ERAKUSKETAK**

**Elizondo:** Elias Garralda margolari lesakarraren lanak ikusgai egonen dira hil osoan Arizkunea Kultur Etxean.

**Zangoza:** Pilar Compains artistaren zeramika erakusketa dago Kultur Etxean, abuztuaren 12ra bitartean.

**Erriberri:** Xabier Doxanbarantzen akuarelak ikusgai dira herriko jauregian, hilaren bukaerara arte.

**Ituren:** Irene Molinaren olio-pinturak hilaren 20ra bitartean izanen dira ikusgai.

**ANTZERKIA**

**Abaigar:** Teatro bajo la arena antzerki konpainiak *El mundo subterráneo de Alicia* lana taularatuko du gaur pilotalekuan, gaueko 21:00etan.

**Orisoain:** TEN-Pinpilinpauza taldeak *Por los caminos de nunca jamás* antzeztuko du bihar, gaueko 21:00etan, herriko plazan.

**Zangoza:** Escarlata Circus taldeak *Los turistas* lana antzeztuko du herriko kaleetan, gaur, arratsaldeko 20:00etatik aurrera.

**ZINEMA**

**Sorauren:** Herriz Herri zikloaren barruan, *Twister* filma emango dute bihar herriko plazan, gaueko 21:30etan.

**Beriain:** *El retorno del Jedi* filma emango dute bihar, Alde Zaharreko Udaletxeko plazan, gaueko 22:00etan.

**DANTZA**

**Iñuberri:** Kultur 97 programaren barruan, euskal jotn jaialdia izanen da bihar herriko pilotalekuan, arratsaldeko 20:30etatik aurrera.

**Urdazubi:** Baztango Dantzariak taldeak ikuskizuna aurkeztuko du igandean, herriko plazan, eguerdiko 12:00etan.

**LEHIAKETAK**

**Lodosa:** Herriko XVI. Ipuin Lehiaketa eta XVI. Angel Martinez Baigorri Olerki Lehiaketa antolatuko dituzte. Irailaren 30ean amaituko da ipuin lehiaketan parte hartzeko lanak aurkezteko epea, eta abuztuaren 30ean, berri, olerki lehiaketakoa.

*nafar kronika*

Pello Argiñarena

**Hamar urte eta gero hau?**

**I**kastolako autobusa hartzen nuen kalean, gaueko ordu txikietan baten batek honako hau utzi zuen idatzia paretan bere esprai gorriarekin: «*Marco gamberro, vete con tu perro*». Gazteegia nintzen esaldi hark zuen zentzua ulertzeko. Are gutxiago *oerrete* zioen sinaduraren atzean zegoena ezagutzeko.

Ni bezalaxe, grisak autobusean ibiltzen ziren garai haiez ari naiz. Hasiera batean Italiako herriak batean bere ama noiz bueltatuko zain bizi zen telebistako laguna izan zitekeela pentsatu nuen. Denborak, ordea, nire kezka guztiak argitu zituen. Zakurrarekin joateko aholkua 1971tik 1979ra Diputazioko presidentea izan zenari zuzenduta zegoen. Azkenean, Amadeo gizarajoak etsita jauregia utzi eta herrirako bidea hartu zuen zintzo demonio.

Duela hamar urte hil zen bakardadea, pobrezia eta zakurra lagun zituelarik. Urtemuga hori zela eta, Nabaskozeko herriak eta Nafarroako Gobernuak omenaldia eskaini zioten aurreko igandean Zalba etxeko semeari. Eliz-

dorrek erlojua gelditu egin zen. Hobe esanda, atzeratu egin zuten. Politikari frankista gorripatuz hantxe aritu ziren orduan eta egun eroso bizi diren zenbait gizon publiko: Arbeloa, Ansuategi, Sanz, Gurra... Martin Villa Barne ministro ohia ezin izan zen etorri, lastima! Hori bai, telegrama igorri zien bildutakoiei.

Dena den, azaldukoek eta Menorcako txaleteko igerilekuan justiziaren kontra igerika ari den beste horrek ere ez dute Marco zenak erakutsitako leziarik nagusia oraindik ikasi: nafarron xoxen gestio zorrotza.

Ekitaldi politikoaren ondotik jotak entzungai Brotes Navarros taldearen eskutik. Nahita ere ez liokete izen egokiagorik jarriko taldeari. Amaitzeko, erakusketa zabaldu zuten Amadeoren etxean: bertan altzariak, argazkiak eta liburuak ikusgai. Haien artean bat: *Mola, aquel hombre*. Nabaskozeko udaletxeko balkoitik zintzilik zegoen bandera gorriaren armariari Patxi oparitutako azalorea jartzea ahaztu zitzaizela gure agintariei. Brotes Navarros, hi!



*asteko pertsonaiak*



**Zupo Ekisoain**  
San Antonioko entrenatzailea

■ Portland San Antonio, Nafarroako eskubaloitzailea, astelehenean hasi zen lanean, eta ilusioz, gainera. Zupo Ekisoain entrenatzailea pozik da aurtengo denboraldirako osatu duen taldearekin, eta *zerbait garrantzitsua* egingen dutela uste du. *Taldea postu guztietan indartu dugu, eta, beraz, ahal dugun guztia lortzeko borrokatu behar dugu* azpimarratu du Ekisoainek. San Antonioren helburu nagusia, dena den, Europa izan da aurtengo denboraldian. Eta xede hori egia bihurtzeko, bost jokalar berri izanen ditu taldeak: Kisselev, Rekondo, Alberto Martin, Ambros eta Mainer. Mikel Idoatek, berriz, San Antonio utziko du Lehen Mailako Huescan jokatzeko.



**Calixto Aiesa**  
Gizarte Ongizateko kontseilaria

■ Nafarroako Gobernuak aurrekontuaren %0,7 bideratuko du garapeneren aldeko nazioarteko elkarlan proiektuetara, hau da, 1.495 milioi pezeta (59,8 milioi libera). Batetik, Nafarroako Medicus Mundiri 290 milioi pezeta emanen dizkio, eta, bestetik, 3,2 milioi pezeta premiazko laguntzetan erabiliko du. Gobernu Kanpoko Erakundeek (GKE) Diputazioan aurkezturiko proiektuak gauzatzeko, azkenik, 1.201 milioi pezeta emanen du Nafarroako Gobernuak, asteartean Gizarte Ongizateko kontseilaria Calixto Aiesak azaldu legez. Gobernuak, denetara, 81 GKEk aurkezturiko 173 proiektu gauzatzeko laguntza emanen du. Batez beste, Nafarroako Gobernuak 6,8 milioi pezetarekin lagunduko du proiektu bakoitza.

*ahaztu gabe!*



**BESTAK**

**Bera:** Sanestebanak bihar eguerdian hasiko dira. Alkateak 12:00etan botako du besten hasiera iragarriko duen altxaferoa udaletxeko balkoitik. Haurren artean goxokiak banatuko dituzte, eta, helduentzat, berriz, txanpaina izanen da. Altxaferoak ez-tanda egin bezain pronto, erraldi eta buruhandien konpartsa herriko karrketan barrena abiatuko da, Zizkuitz txarangak lagunduta.

Arratsaldean, 16:30etan, plater tiraketa egingen dute Lizuniagan, eta 19:30etan, berriz, herriko txistulari banda aterako da kalera, txoko guztiak alaitzera. Ordubet beranduago dantzariak hartuko dute bestaren lekukoa. Gure Txokoa taldeko kideek urteroko ikuskizuna aurkeztuko baitute Eztegarra pilotalekuan. Gauerditik aurrera, Maixa eta Itziar trikitilarien eskutik dantzaldia izanen da Altxateko plazan.

Berako bestak datorren asteazkenean bitartean luzatuko dira. Beratarak, hala ere, ez dira asteburu honetan herriko jaiak ospatzen hasiko diren bakarrak izanen, Lizarran ere asteburuarekin batera hasiko baitira bestak. Lodosan, halaber, asteazkenean hasi ziren jaiak.

*adi!*

**Euskalerria Irratia FM 91,4**

Egunero asteleheneetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

**Xorroxin Irratia FM 107,5**

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteen-dako saioa.

**Aralar Irratia FM 106,2**

Asteazkenetik ostirala, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketak.

**Irati Irratia FMko 107.7n eta 103.8n**

Ostiralero *Txirristi-Mirristi* haur-erentzako saioa 12.30etan.

Agoitz

Irurita

# Artzainen omenezko merkatua etzi

Azoka Transhumanteak antolatu ditu aurten Artisau Elikagaien Elkarteak

**A**goizko Udalaren, Gurelur elkartearen eta Nafarroako Artisau Elikagaien Elkartearen eskutik, Merkatu Transhumantea egingen dute igandean Agoitzen lehen aldiz. Antzinako Merkatuak hartzeko gaitasunik ez duten herri txikiak prestatu du azoka berria Artisau Elikagaien Elkarteak. Halaber, nortasun propioa eman nahi izan die merkatuei, beste herrialdeetan egiten direnetatik bereizteko.

Edurne Elizondo / Iruñea

IGANDEAN Nafarroako Artisau Elikagaien Elkartearen ekimen berria jarriko da abian: Azoka Transhumanteak, alegia. Agoizkoa izanen da lehendabizikoa, baina ez bakarrik, hil honen 17an Lekunberrin egingen baitute, eta 31n, berriz, Lesakan. Izenak berak argi azaltzen duen legez, transhumantzia da merkatuon ardatz nagusia, eta, ildo berean, artzainak, ardiak eta ardibideak.

Merkatu Transhumanteak abian jarri ahal izateko hainbat elkarteren elkarlana beharrezkoa izan da, baina guztien artean bi dira proiektu berriaren benetako giltzarri: Agoizko Udala eta Artisau Elikagaien Elkarteak. Udalak herriaren antzinako nortasuna gogora ekarri nahi izan du, eta Artisau Elikagaien Elkarteak, berriz, beste ekimenetatik ezberdina den proiektua egin.

Gurelur elkarteak Agoizko Udalak eskatuta parte hartu du proiektu berriaren osaketan. Carlos Garcia Pascual elkarteak kideak azaldu legez, «Nortasunaz hornitu nahi izan ditugu merkatuak, artisauen eta lurralde bakoitzaren artean dagoen harremana bilatu», azpimarratu du. Horregatik, hain zuzen, Agoitz aukeratu dute transhumantziari eskainitako lehen azoka egiteko.

«Gaur egun izaera hori galdu badu ere, Agoitz Pirinioetako erreferentzia izan da, zonalde horretako bailaren bilgune, transhumantziari esker. Merkatuaren bidez, orduko giroa berreskuratu nahi dugu, egun bakar batez bada ere», azaldu du Carlos Garcia.

Eta egun horretan, igandean, hain zuzen, transhumantziaren, artzainen eta ardibideen giroa izanen da nagusi Agoitzen. Azokan parte hartuko duten artisauak propio jantziko dira, eta Antzinako Merkatuetan bezala, kale animazioko talde bat ibiliko da txokoak alaitzen. Artzainen lana gogora ekarriko duen ikuskizuna prestatu dute egun osoan herritar eta bisitariel erakusteko.

Agoizko Merkatu Transhumanteak goizeko hamarretan zabalduko ditu ateak igandean,



Agoizko Merkatu Transhumantea iragartzeko plazaratutako kartelego argazkia.

eta gaueko hamarretan itxiko ditu berriro. Arratsaldeko ordu-bietatik lau eta erdiak arte, halaber, atsedean hartuko dute artisauak bazkaltzeko. Artisauak dagokionez, hain zuzen, mota askotakoak izanen dira Agoizko azokan, beti ere transhumantziaren munduarekin lotuak diren lanak egiten. Guztira 25 postu egonen da, haietako zortzi Artisau Elikagaien Elkarteak.

Juana Rosauo Nafarroako Artisau Elikagaien elkarteak kideak azpimarratu legez, bestalde, Agoizko azoka igandean izanen bada ere, ostiralean eta larunbatean ere izanen da zer ikusi herrian, transhumantziari buruzko erakusketa antolatu baitute. Alde batetik, Jagoba Manterola egunkari honetako kolaboratzailearen eta Nicolas Ardanazen argazkiak izanen dira ikusgai.

Manterolak Erronkaritik Bardeetara ardibideetan zehar joandako artzainei buruzko ar-

gazi bilduma zintzilikatu du. Argazkiekin batera, bestetik, Nafarroako Artisau Elikagaien Elkarteak kideek hainbat historialariren laguntzaz bildutako testu eta mapek osatuko dute transhumantziari buruzko erakusketa.

Igandeko Merkatu Transhumanteak, bestalde, artisauen produktuak ezagutu eta erosteko aukera ezezik, erosketa horien bidez ardibideak laguntzeko eskainiko die bisitariel. Horretarako, transhumante-txartela egin ahal izanen dute denek azokan bertan. Erosketak egitean txartela erakutsiz gero, diruaren %4 ardibideak berreskuratzeko erabiliko da, ardibideak konpontzeko, batetik, eta ardibideei buruzko tesi, ikerketa eta argitalpenak laguntzeko eta bultzatzeko, bestetik.

**Herri txikiak egindako merkatuak** • Igandean Agoitzen abian jarriko diren Merkatu

Transhumanteak, beste herrialde askotan egiten diren azoketatik bereizteko sortu ditu Nafarroako Artisau Elikagaien Elkarteak. «Antzinako Merkatuekin arrakasta handia lortu dugu, baina konturatu gara beste leku askotan egiten direla antzekoak. Zerbait ezberdina egin nahi genuen guk, zerbait berezia. Gainera, badira Nafarroan Antzinako Merkatuak hartzeko gaitasunik ez duten herri asko, eta haiei zuzenduta sortu ditugu Merkatu Transhumanteak», azaldu digu elkarteak kide Juana Rosauok. Hala ere, Artisau Elikagaien Elkarteak ez du Antzinako Merkatuak bazter uzteko asmorik.

Igandean Agoitzen egin ondoren, Lekunberri eta Lesakako herritarrek hartuko dute Merkatu Transhumanteen lekukoa, abuztuaren 17an eta 31n. Eta aurten bezala, datorren udan Nafarroako beste hainbat herritar iritsiko dira. Hori da, behintza, antolatzaileen asmoa. X

Eskualdeko hiltegi berria inauguratu zuten asteartean

■ Datorren astelehenean zabalduko dute

Erredakzioa / Iruñea

JOAN DEN asteartean inauguratu ondoren, datorren astelehenean zabalduko ditu ateak Irurita hiltze berriak. Baztan, Bortziriak, Malerreka, Urdazubi eta Zugarramurdiko eskaintzari aurre egingen dio. Irurita hiltze zabaldu ondoren, hain zuzen, Doneztebe, Elizondo eta Berakoak desagertuko dira, Europako araudia betetzen ez dutelako. Bai, ordea, Irurita, helburu horrekin hasi baitzen 1991. urtean Baztango Udala berau eraikitze behar ziren pauso eta urrats guztiak ematen.

Irurita hiltze eraikitze, hain zuzen, 110 milioi pezeta inbertsioa egin behar izan dute (4.400.000 libera). Kopuru horren %65 Nafarroako Gobernuak ordaindu du, eta gainontzekoa, berriz, Baztango Udalak. Hiltzearen inaugurazio ekitaldian, hain zuzen, bi administrazioetako ordezkariak izan ziren. Nafarroako Gobernutik, Ignacio Martinez Alfaro Nekazaritza eta Abeltzantza kontseilaria izan zen. Halaber, kargu hori aurretik bete zuten Jose Cruz Perez Lapazaran eta Javier Etxarte ere Iruritan izan ziren. Baztango Udaletik, Patxi Oiarzabal alkatea izan zen, eskualdeko beste hainbat agintarirekin batera.

Baztango Udalak Kudeaketarako Institutu Teknikoaren eta Garalur elkartearen laguntza izan du Irurita hiltze egiteko. Kudeaketarako Institutu Teknikoari dagokionez, eskualdeko geografia, biztanleria, ardi, behi eta txerri-azienda eta gaur egungo abere hiltzearen errendari buruzko ikerketa egin du. Garalur elkarteak, berriz, hiltzearen bideragarritasun ekonomikoa aztertu du. Hiltzeak, azkenean, 1995. urteko abenduan hasi ziren eraikitzen eta joan den ekainean bukatu zuten.

Astearteko ekitaldian Baztango alkate Patxi Oiarzabal azpimarratu legez, «Irurita hiltzearen lehen sektorea indartu nahi du Baztan-Bidasoa aldean». Alkateak, halaber, kudeaketa pribatua aukeratu dutela erran zuen, «hiltzearen ahalik eta zerbitzu gehien eskaintzeko». Loizu S.L. enpresa izanen da, hain zuzen, hiltze kudeaketa duena. Haragia harategiraino eramateko beharrezko inbertsioa egin du enpresak. Hiltzearen, erran bezala, astelehenean zabalduko ditu ateak, eta aurrerantzean, astelehenean ostegunera bitartean egonen da irekita, goizeko 7:30etatik 12:00ak arte. X

Lakuntzako  
'Matraka' diskoteka

# Matrakak eta liskarrak


Lakuntzan dagoen Matraka diskotekak 'tekno' musika baino zerbait gehiago eraman du Sakanara

**H**erriko plazatik kilometro erdi batera badago ere, Matraka diskotekak arras aldatu du igandeetan Lakuntzako bizimoduak. Duela hiru urte sortu zenean, tekno musika Sakanara ekarri zuen lehena izan zen, eta gaur egun mila pertsonatik gora elkartzen dira igande goizero Matrakaren inguruan. Eztabaida Lakuntzan piztu eta Sakanako haranean zabaldu da azken hilotan. Zaila da, hala ere, tekno bizimoduak inguru herriko batean daukan benetako eragina polemika antzuekin ezberdintzea.

Mikel Reparaz/Lakuntza

ZAILA da, zinez, herrietako liskar eta ika-miketan barnertzea. Matraka Lakuntzara ekarri zutenek, ordea, aurrez-aurre ezagutu zuten haien kontrako giroa. Iosu Palomo Matrakako gerenteak kontatzen duenaren arabera, «duela hiru urte Lakuntzara etorri ginenean oso giro bakartia aurkitu genuen, guk proposatzen genuen musika mota eta mobidarentzako basamortu bat bezalakoa zen Sakanaldea. Gainera, ingurunea gure kontra zegoela sumatu genuen hasieratik. Urte eta erdiko epean ez zen inor etortzen diskotekara, baina orain, zorionez, arrakasta handia ari gara ezagutzen».

Baina «arrakasta» hori ez dute denek berdin ikusten, izan ere Matraka igandeetan goizeko zortziretan irekitzen dutenero Lakuntza jendez betetzen baita. Eta ez edonolako jendez, gainera. Kanpoko bisitariak izaten direla aitortzen du Iosuk: «Matrakara beste diskoteka batzuetatik etortzen da jendea, Zaragoza, Bilbo, Logroño, Gasteiz, Iparralde, Burgos, Donostia eta Iruñetik, batik bat». Jantzi deigarriak eraman ohi dituzte herrian matrakero deitzen dituzten horiek. Ainhoa Iosuren neska-lagunak dioenez, «tekno mugimenduan modak eta estetikak zerikusi handia dauka, musikarekin batera doa, eta hori suertatu liteke harrigarrien adinekoentzako, jendearen itxura» Lakuntzan igandeetako meza ondoko txikiteorik ez da egiten aspaldi honetan. Izan ere, ez baitago lekurik herriko adineko zein gazte jendearentzako. Matrakatik datozen bakaladeroek herria okupatu egiten dute goiz parteaz geroztik. Sorgintze ostaturako Manuela Urangak dioenez, «taberna guztiak goizeko zortzietarako irekiak daude, eta bakalao musika jartzen dute gainera, Matrakatik datorren jendearen-



Matrakaren inguruak kotxez betetzen dira igande goizero, eta herriko karririk ere horrela izaten dira, jendez gainezka.

JAGOBA MANTEROLA



Kalitatezko tekno musika izaten da Matrakaren jartzen dutena, mundu hori ezagutzen ez dutenentzako, bakalao hutsa.

JAGOBA MANTEROLA

tzako espreski. Nik, ordea, ez dut haiekin deus jakin nahi, eta tabernaren ordutegia ez dut aldatu, beti bezala eguerdian irekitzen dut Sorgintze». Ez dago ukatzerik Lakuntzako ostaturako negozioa dela Matraka, eta izan ere tabernari askok haien poza adierazi dute.

Igande goizak ikusgarriak dira Lakuntzan. Herriko plaza eta inguruak jendez beteak izaten dira, eta herriko karriketarako sarbideetan kontrol bitxiak ikusten ahal dira. Udaltzainak bailiran, Matrakako segurtasuneko goardiek herritarren ibilgailuei baino ez diete uzten herrigunera sartzen, eta Matrakaren inguruko baratzak ere segurtasuneko goardien begiradapean izan ohi dira igandero. Bitartean, Lakuntzako ostatu eta dendak zabalik izaten dira, eta ogitartekoak eta edaria barra-barra saltzen dira turista berezi horien artean.

**Bisitari bitxiak** • Erraza da matrakeroak ezagutzea. Betaurreko beltzak eta jantzi koloretsuak eramaten dituzte, eta haletako franko oso gazteak dira. Lakuntzara Iruñetik allegatzen den lehen autobusa mendizalez beteta etorri ohi da. Mendizale itxura izaten dute behinik behin, gerora bizkarrean daramatzaten motxilak aparkatuak uzten baitituzte tabernaren batetan. Aliziak -izen hori eduki nahi izan omen du betidanik- 17 urte ditu eta Iruñean bizi da bere gurasoekin: «Etxean mendira, Aralarra noala esan dut, eta horretarako goiztar jaiki naizela uste dute; astebururo egiten dut berdina». Aldiz, Alizia

Lakuntzako 'Matraka'  
diskoteka


Matrakara zihoan, bera baino zaharragoko mutiko batzuekin, eta Lakuntzara iristearekin motxilari zeramatzan arropak jantzi zituen. Oso jantzi «eskasak» izaten dira matrakeroenak, Manuela Urangak dioenaren arabera: «Herriko mutilzaharrak aztoratu egiten zaizkigu horren neskato izugarriak ikustean!».

Jacques eta bere lagunak Baionatik joan ziren igandean Lakuntzaraino, «dibertsio pittin baten bila». Jacquesek 24 urte ditu eta supermerkatu batean egiten du lan. Haren ustetan, «Matraka bezalako lekuek ez diote inori kalterik egiten, eta bertaritzen garenok ere beste jende mota asko baino baketsuagoak gara». Kotxez joan ziren Matrakara, Donostiako Ku diskotekatik zuzenean. Aldiz, ez ziren Matraka barrura sartu ere egin: «Guk ez dugu sarrerarik ordaintzen -1.500 pezetakoa da Matrakako sarrera-, izan ere badago eta nahikoa giro aparkalekuetan! Zertarako sartuko gara bada?».

Matrakeroen inguruan istorio anitz kontatzen dira herrian, diskoteka barruan jendea hil egin dela, bortxaketak direla... Haietako istorio anitz oinarririk gabekoak diren arren, Matrakaren inguruan mitologia moduko bat eratu da, eta ahozko literaturak mugak gainditu ditu. Sokorro Artieda Lakuntzako alkateak dioenez, ordea, lakuntzarrek ke-xuak bideratu izan dituzte Udalean, eta hori dela eta neurriak hartu behar izan ditu horrek. «Lehen kotxeak ziztu bizian pasatzen ziren herri barnekaldeak, eta hori oso arriskutsua zen. Horregatik, Matrakako Iosurekin konpondu ginen trafikoa kontrolatzeko. Oraindik sartzen dira kotxeak herrian, baina lehen hobenean 50 baldin baziren orain 10 dira. Jendea, hala ere, oinez etortzen da», zioen Artiedak. Alkatearen esanetan, gainera, Matrakarekiko harremanak oso onak dira, eta elkarrenganako errespetuan oinarritzen dira.

**Sexua, drogak eta... teknoa** • Iosu Palomok ongi ezagutzen du jaigiroa, izan ere horretaz bizi izan baita azken urteetan. «Nire helburua argia da», dio Iosuk, «dibertsio fabrika bat da Matraka, eta horretarako dago, jendeak asteburua ezin hobeto pasa dezan». Hala ere, Matrakak jasotzen duen kritiketako bat bertan droga kantitate itzelak mugitzen direla da. Matrakako segurtasun buru Jose Marik dioenez, agindu zehatza daukate goardia guztiak: «Ez dadila lokalerako droga apurrik sartu».

Iosuren aburuz, musika jakin baten inguruan sortzen den gazte mugimendu orok izan du drogekiko lotura bat, eta «beti jarri nahi izaten zaizkio etiketak arrotz egiten zaizkigun gauzei». Tekno mugimenduari egokitu bide zaion etiketa droga kimikoena da. Hala ere, Ainhoak ez du ukatzen Matrakaren dabilen jendeak drogarik hartzen dituenik: «Nik beti esan izan dut drogak erabiltzen jakin behar dela, drogak zuk zeuk menpera ditzazun, eta ez alderantziz». Hala ere, Iosuk behin eta berriro dioenez, «Matrakaren ez da drogarik sartzen, ba-



Iosu eta Ainhoa Matraka diskotekaren ardura daramate astebururo.

JAGOBA MANTEROLA

## Matrakaren erraietan

**IOSUK ETA AINHOAK** Matrakaren ardura daramate duela hiru urte sortu zenez geroztik. Bikote bizkaitar horrek -Iosu Gernikakoa da eta 38 urte ditu, eta Ainhoa bermeotarra berriz 27- lehen toki berdinean zen Ilargi dantzalekua birmoldatu zuen eta aire arras ezberdina eman zion. Musikaz gain, ordutegiak ere aldatu egin ziren. Inguruko biztanleen harridurarako, goizeko zortziretan irekitzen hasi zen diskoteka, eta igande goizero ehundaka pertsona biltzen dira aparkalekuan. Barruan, berriz, tekno musika «kalitatezko teknoa», Iosuren hitzetan- jartzen hasi ziren. Lehenengo urte eta erdia latza izan zen, ez baitzen apenas jendirik hurbiltzen. Orain, aldiz, «negozioari etorkizuna ikusten zaio», Iosuren

esanetan.

Matrakako giroa bitxia da. Astebururo dantzari ezberdinak izaten dira, performance eta ikuskizunak aldatzen joaten dira, eta guztiaren gainetik musika izaten da, tekno itxia, inolaz ere komertziala. Ainhoak dioenez, «gure musikak harrapatu egiten zaitu, behin adituz gero ezin diozu musika hori entzuteari utzi, eta gainera Matrakaren barruko giroa oso atsegina da, oso adeitsua».

Hamar pertsona arduratzen dira Matrakako segurtasunaz. Haietako bakoitzak diskoteka barruko eta kanpoko esparru bana dauka kontrolpean: dantzarako pista, komunak, ataria, aparkalekua, herrirako sarbideak, inguruko baratzak... Armada pribatu baten antzekoa da Matrakako se-

gurtasuna, Iosu eta Ainhoaren gazteluaren inguruan.

Iosu, teknoaren munduan hasi baino lehen eta 14 urtez karnioilari lanetan ibiltzeaz gain, Zurrapak bezalako rock taldeetan izan zen. Iosuk dioenez, oso ongi ezagutzen du euskal rockaren mundua, eta teknoarekin alderatzen du. «Nire ustez, teknoarekin gertatzen ari dena gertatu zen lehenago euskal rock radikala deritzonarekin. Kortatu taldearen musika garai batean nonnahi aditzen zen, edonork dantzatzen zuen «Sarrri, Sarrri» hura edozein festetan. Musika mota hura egiten zuten talde askotan, ordea, ez zegoen kalitatearik, eta azkenean desagertu egin ziren. Bakalao bezala ezagutzen dugun mugimendu horrek ere bide berbera hartu du.

Musika horrek ez dauka kalitatearik, eta desagertu egiten da; kalitatezko teknoak baino ez du iraunen azkenean», dio Iosuk.

38 urte dauzkala errepikatzen du behin eta berriro Matrakako gerenteak, punk mugimendua ezagutu duela esateko; gaur goizean jaioa ez dela argitzeko. Izan ere, Iosuk La Polla Records taldean Evaristori lekua kentzearegon baitzen, eta oso harreman onak izan baititu Meteors, RIP edota Toy Dolls bezalako taldeekin. Ainhoak dioenez, «Iosu eta biok bakaladeroen aurka gaude guztiz, ezin dugu txundatxunda hori jasan; guk musika maite dugu. Lehenik erakarri gintuena acid musika izan zen, eta bide horretatik ezagutu genituen teknoaren esparru guztiak. Uste baino aberatsagoa baita».

rruan ez da inor drogatzen, eta horretarako daukat segurtasunekoak komunetan. Norberak bere kotxean edo beste leku batean egin dezakena ez da nire ardura, nik ez daukat hor inolako erantzunik. Sokorro Artieda alkatea horrekin bat dator: «Drogak? Edonon daude drogak gaur egun. Hala ere, aitortzen dut

nahiago izanen nukeela Matraka Lakuntzan ez egotea, beste gauza bat izanen litzateke».

Iosurentzako, Sakanan zabalduko dagoen «tabu» bat ei da Matrakara joatearena: «Badirudi aitortu ezin den zerbaite dela, lotsagarria dela. Eta ezin uka daiten Sakanaldeko jendea ere etortzen dela diskotekara». Hala

ere, lakuntzarren eritzia ez dator bat horrekin. Sorgintze tabernako Jose Zubietaren ustez, «herriko matrakeroak oso gutxi dira, pare bat gehienez. Kanpotarrak dira gainontzekoak».

Duela urtebete inguru, Lakuntzako Guraso Elkarteak zenbait kidek batzorde bat eratu zuten Matrakaren ustezko eragin

kaltegarrien aurka ekiteko. Jose Julian Garziandia Lakuntzako gurasoen ordezkariak dioenez, «gu ez gaude Matrakaren aurka, herrira etortzen den Matrakako jendearen aurka baizik». Gurasoek hainbat kexu azaldu zituzten Udalarri duela bi hilabete ospatu zen bileran: kotxeak ziztu bizian pasatzen zirela, jendeak karrikan bertan drogak hartzen zituela, jendea publikoki larrujotzen izaten zela eta goize partetik iskanbila ozenak izaten zirela herrian. Kexu horiek zirela eta, Udalak zenbait segurtasun neurri hitzartu zituen Matrakako jabeekin. Baina Garziandiak dioenez, «oraindik ere ez dira kontu guztiak konpondu, izan ere herriko dendari eta tabernari ez baitzaie interesatzen Matrakara datorren jendea herritik aldentzea». Guraso Elkartearen atzetik, gazteak ere ekimenak prestatzen hasi dira, igande goizetako «okupazio» horren aurka. Artean, Iosu eta Ainhoak beraien «dibertsio fabrika» igandero, goizeko zortziretan, irekitzen jarraitzen dute, kanpotik datozkien eraso guztiel jaramon egin egin gabe. «Nire lanaz harro nago, asteburua iritsi eta mila pertsona pozik, gozatzen ikusteaz eta hori guztia nire lanari esker dela pentsatzeaz. Gainera, nik Matraka urte askoz irautea nahi dut, kalitateak baino ez baitu irauten», dio Iosuk. «Gainera, guk ez diogu inori kalte egiten, eta jendarean gardenak gara, garen bezalakoak agertzen gara. Guk ez dugu eta ezer estaltzeko». Hala ere, eta igandero gertakizunak testigu, lakuntzar anitzek Matrakari botatzen diote errua. Lakuntzako igande goizak lehen bezalakoak ez direnaren errua. X

## Xanti Begiristain

## Euskararen normalkuntza

■ Nabarmena da azken hamarkada hauetan euskara arloan lortu eta lortzen ari den normalizazioa. Faktore askok dute zeresana kontu horretan, esate baterako, euskara batuaren eraikitzeak, azken arauak, mota guztietako komunikabideek (irratiek, telebistek, egunkariak, aldizkariak, liburuek, antzerkiek, zinemak eta abar), administrazioak, udalek, aldundiek eta beste milak.

Hori dela eta, oso pozik eta baikor nago. Ukaezina da egin den aurrerapausoa.

Baina nik uste dut euskararen normalkuntza horrek aurrera jo behar duela etengabe eta esparru guztietan gainera.

Badago, hala ere, uda honetan irratsaio bat Euskadi Irratian zer pentsatua eman didana.

lako zalantzarik gabe, berebiziko morrontza eta menpekotasuna gaztelaniarekiko. Badirudi euskarak ez duela balio mundu osoan egiten diren filmeen izenak gure hizkuntzan normaltasunez esateko, edota euskaraz esatea zerbaitek dioela ez dela zilegi.

Ikus dezagun jarraian, aldiz, zer-nolako irizpidea erabiltzen duten gai berbera tratatzeko (musika, zinema, eskultura, pintura, arkitektura, literatura eta abar), esate baterako, Lur, Elhuyar eta Harluxet entziklopediek: *Goizeko paseoa*, *Neska gorputza*, *Artzainen gurtzea*, *Errege Magoen gurtza*, *Ekaitza*, *Pietatea*, *Venus-en lorategia*, *Gurutziltzatua*, *Neska Ijitoa*, *Afrikako erregina*, *Neska eta heriotza*, *Gosaria*, *Haizearen orrazia*, *Bredako errendizioa*, *Kris-*

## Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

## Tubalen ehizaldia Bardeetan

■ Antonio Martínez Puio genuen *Tubal* ezizenaren azpian ezkututzen zitzaigun tuterarra. Aitzineko gizaldi ondarreran batik bat bere lanak burutu zituen apaiz honek antigualeko moldeetan zuen oinarria, baita zerabilen funts zientifiko osoa ere ehiki. 1901.ean eta Murtxanteko erretorea zela, Tuterako Udalak eskaturik estakuru, festetako sermoia ogutzi zuen Erbeheretako eliz nagusian Santanaren omenez, eta prediku hartan, ziurtasun osoz, Done Jakuek, Zaragozarako bidean abian zela, Ebro uhaldeko hirian predikatu zuela baieztatu zuen irmo. Horixe bai zela siniste sendoa. Halarik ere, oraingo honetan ez gara siniskeria kristauen ildo beheitirakorretatik labanduko, eta Martínez Puio ondu bestelako lan interesgarri baten berri emateko jardun behar dugu, uda heze honek haizu zilegitzen digulako zihurtasun sendoan bederen, alta, zein ero litzateke gai, uda arrunteko bero sapekin Aragoiko muga zabalaren diren Barde idorretan alaiki tipilgorritan sartzeko?

Gorago aipatu Tubal izengoiti aproposa esleitu zigun gure gizonak *Una cacería en las Bardenas Reales o aventura de unos estudiantes* goiburua daraman elaberri historikoa sinatzeko. 1908.ean karrikaratu zuen Nafarroako Erriberako Tipografikak, eta 400na orrialde betetzen dituzten bi zati dira, 24 eta 28 kapituluaz horniturik hurrenez hurren. Liburuan barrera ehunduriko bilbea ezin erzoagoa otu zaigu, geroago eta hergelagoa. Fernando Pérez Olloren aburuz ez buru ez hankarik ez lukeen istorio undatsa litzatekeena, alabaina Euskal Herriko ertz eguzkitsu hartan logale hedatzen den basamortuaren gaineko hamaika kontu zaharrez jabetzeko arras irakurketa interesgarria dukegu Tubal ez izkiriaturikoa, ez ordea nolanañi eta nonahi baztertzeko gertagarri, areago idazkia begiztatzeko dauden zailtasunak gogoan hartzen baditugu, bada, Nafarroako liburutegi nagusian ez baita. Beharrik Herrerias karrikako liburutegian badagoela irakurgai, eta liburu bakar batengatik Beterriko hiriburura huiltantzeko inor ere prest ez balego, gutxienez joan dadila biblioteka hau aterbetzen duen jauregia bisitatzera, segurki merezi duelakoan baikaudé.

Ikasturte berriari hasmenta eman baino lehenago, irailaren 8an hain zuzen ere, Tuterako aldeko ikasle zenbaitzuek Bardeetara ehizari joatea erabakitzen dute oporrei amaiera ahanztezina ematearren. Forzudo, Matalobos, Piernaslargas, Estripacuentos, Malasombra, Chistoso, Bruterías, Osado, Escolasticorum, Sangrenegra, Montañas eta Caparrota ditugu estudiante tunante aldra zinez eder honen osagileak, eta izen hantuetako multzo hau erabatez borobiltzeko Tarazonatik heldu zen trenari ematen zitzaion deitura aldrebesa falta ote da soilik, *eschamatas* alegia, bestaldetik, Abartzuzako Bidadorren batek ere pairatzen duena. «Ya ha llegado San Miguel, Pastores a la Bardena, A beber agua de balsa, Y a dormir a la serena». Zintzurrez zintzur airokik hegaldatu jota Itxaro Bordaren lumatik errendatu zitzaigun azkenekotik. Gu ere garoila aldean Bardeetaratu gara, eta Amaia Ezpeldoiri agitu bezala, Zuriñe erregina Peñafloretatik azaltzen ez bazaigu ere, Antso Abarka errege mitikoa zaigu etorri honetan bere gotorlekutik. Ez da Barde guziak zehatz-mehatz ibiliak eduki behar hainbat toponimo ezagun gerta daitezten: El Plano, Txirimendia, Sardazuria, La Blanca, Eguaras, Landazuria, Naba, Piskerra, Santixkorrota, Andarriaga, Tximorra, Olivete, Nasa, Modorra... Bardea Beltzaren inguruan, hau da, hegoaldeen dagoen eremu arbolatuan, ler bihurrik badira ere, bada, Tauste aldera eta Euskal Herrikan kanpo beraz, Antso Abarka izena daraman muinoa. Bertaratu ezkerre, zur eta lur harri gaitzakeen gain laua topatuko dugu, oro isila eta utzirik, oro zuri eta itxirik. Gehixegi hastandu gabe, Fraidearen peña edo *cabezo* dugu, Antso Abarka erregeak bere gaztelua egiteko benetan aukeratu toki hauta. Barga honetan, tradizioak dienez, Andre denaren iduria azaldu zitzaion Urzainkiko artzai bati, Ibar izenekoa —ez ordea Mokoroa—. Tradizioak ere iduri hori 600. urtean Jaca eta Oloro lotzen dituen bidean dagoen Aspe aldeko Sarrance herrian agerturikoa berbera dela dio, eta erreforma zela bide hugonotengandik ihesean Bardeetako malkor galdu hartara aldatu zuen pausalekua. Naski agertokia Nafarroan da, Barde barruan, baina nonbait, Urzainkiko Ibar huraxe ikusitakoaren berri emateko Fustiñanara joan zenean, inork gutxi sinistu zion, eta aski drole harturik, ekiak sobera berotu artzai gazte baten zorakeritzat jo zuten. Ez zen ber moduan Tausten gertatu, eta agertokira prozesioan iritsirik, bere aldera eramane zuten iduria. Ohiturak agindu legez, agertokian ermita bastitu beharra zegoen, baina badaezpada ere, Taustekoek mugaz bestaldetik, gure aldetik hots, ez zuten egin, eta jada Aragoien dagoen muru batean altxatu zuten gaur ezagutzen duguna.

Martínez Puio ez zuen zalantza tipienarik ere, eta horrenbeste jauregi zein erret egoitzen behialako eremuaz iritzi arras nostalgikoa esanguratsua baina zuzendu zigun bere idazkian: «Las Bardenas en aquella época no eran los aridos y casi agotados montes de ahora, sino una prolongación de las montañas de Navarra y Vascongadas, cubiertas de copudos árboles y de vegetación asombrosa». Ez da hagitz azkarra izan behar, edozein baxalok ikusiko luke beraz, balizko Barde berdeen zantzua xerkatzeko gure Tubal ez dela Euskal Herrikan ateratzen, demagun, Aragoiko bortuetara. Halaz guziz, gaitzikorregiak garelako lioketenak baleudekenez hobe dateke isilik geratzea. Oraingoz bederen. ■



Montxo Armendariz zuzendaria eta *Secretos del corazón* filmearen kartela.

Programa hori Joseba Agirretxeak aurkezten du astelehenetik ostiralera, lan egunetan, eta filmeen musikaren gaiari buruzkoa da. Deus baino lehen aitortu nahi dut sarritan entzuten dudala eta oso gustukoa dudala. Are gehiago oraindik, nabari da Josebak atsegina duela gai hori eta oso ongi menperatzen duela. Orain arte bikain, eta ez dut deus ere kritikatzeko, baina esaten dituen pelikulen izenburuei erreparatzen badiegu, ordea, orduan jada ez dakit zer esan.

Hobe uler dezagun, irakurle, hona hemen programa horretan erabiltzen duen titulu-sistema, adibidez: *Nunca en domingo*, *Secretos y mentiras*, *Tiburón*, *El imperio del sol*, *Encuentros en la tercera fase*, *Herrialde Handia-Horizontes de grandeza*, *Romeo eta Julieta*, *Fiebre del sábado noche*, *Una estación de paso*, *El aliento del diablo*, *El golpe*, *Vidas sangrientas*, *La mula Francis*, *El gordo y el flaco*, *Memorias de Africa*, *Secretos del corazón*, *Tierras de penumbra*, *Lo que queda del día*, *Un hombre y una mujer*, *Bajo el fuego*, *Instinto básico*, *Lo que el viento se llevó*, *Doble vida*, *Con temor*, *La película* eta beste hamaika izenburu.

Ikus daitekeenez, pelikulen tituluak izendatzeko, funtsean gaztelania erabiltzen du, salbuespen oso gutxi kenduta, eta jakina, ingelesa ere bai.

Nik erabilpen horretan nabaritzen dut, ino-

toren ehorzketa, *Emaztegaia*, (hurrengoak Charlie Chaplin-enak) *Arlotea*, *Inmigrantea*, *Mutikoa*, *Erromesa*, *Iritzi publikoa*, *Urrearen ametsa*, *Hiriko argiak*, *Garai modernoak*, *Diktadore handia*, (jarraian Gary Cooper-enak) *Virginiarra*, *York sarjentua*, *Eguerdi Goritan*, *Sanson eta Dalila...* *Nire emaztea biluzik* (Dali), *Danae urrezko euritan* (Tiziano), (beste hauek Ruben Dariorenak) *Epistolak eta poemak*, *Urdina*, *Jende bitxia...* (Claude Debussy-renak) *Seme galdua*, *Andereño aukeratua*, *Itsasoa*, *Nokturnoak*, *Irudiak*, *Preludioak* eta abar. Ia-ia kontu ezin ahalak dira.

Azken adibide hauekin uste dut argi baino argiago gelditu dela, euskaraz ere lor dezakegula erabateko normaltasuna eremu guztietan, baina horretarako lehendabizi guk gerok sineksi behar dugu, bestela horrelaxe jarraituko dugu, mugarik gabe, gaztelania eta frantsesaren menpean.

Nik logikoa ikusten dut jatorrizko izena edota titulua esatea ez bada euskarara itzuli nahi, baina guztiz desegokia, ordea, beti frantsesa eta gaztelania erabiltzea zubi moduan eta makulu gisa, gure hizkuntza gutxietsiz eta afera horietarako balioko ez balu bezalaxe. Batzuetan euskaraz emandako pelikulak, erdaraz esaten dituzte oraindik. Azken aldrebeskeria: *Jatak 97*; zezena esaten zuten eta errapea zeukan. ■

# Egile berrien bila

Iruñeko Udalak Egile Berrientzako XII. Literatur Lehiaketan parte hartzeko deialdia zabaldu du

Edurne Elizondo / Iruñea

IRUÑEKO UDALAK 1985. urtean antolatu zuen lehen aldiz Egile Berrientzako Literatur Lehiaketa. Orduan, Aingeru Epaltzak eskuratu zuen lehen saria narrazio laburrean, eta, olerkian, berriz, aipamena. Komiki sailean, berriz, Manolo Gil izan zen irabazlea. Orduz geroztik, beste nafar askok hartu du parte Udalaren lehiaketan, eta beste nafar asko izan da, halaber, irabazle. Lehiaketak, gainera, gora-behera asko izan ditu azken hamabi urteetan, gaur egungo moldea lortu arte.

1985. urtean, Euskara Zerbitzua jaio berria zen Iruñeko Udalean, Iñaki Azkona euskara teknikariak gogoratu legez. «Euskararen inguruan hainbat gauza egiten hasi ginen, eta argi genuen halako lehiaketa prestatu beharra zegoela», esan du Azkonak. Une hartan, Iruñeko Aurrezki Kutxa Municipalak antolatu Xalbador saria bazegoen oraindik. «Lehiaketa hura, ordea, idazle kontsagratuei zuzendua zen. Guk ez genuen Xalbador sariarekin lehiatu nahi, batziki eta haren osagarri izanen zen beste lehiaketa bat antolatu nahi genuen». Horrela sortu zen Egile Berrientzako Literatur Lehiaketa.

Eta izenak berak argi erakusten duen bezala, Udalaren lehiaketak nafarren artean egile berriak bilatzea izan zuen helburu hasieratik. «Hori zen eta hori da lehiaketaren berezitasuna, halako oso gutxi baitago. Oinarria landu nahi dugu guk», azpimarratu du Udaleko Euskara teknikariak.

Eta Iruñeko Udaleko lehiaketan parte hartu duten egile berrien artean, hain zuzen ere, gaur egun gure artean ezagunak diren izen asko dira aipatzekoak. 1987. urtean, adibidez, Felipe Riusek irabazi zuen narrazio laburrean, eta Joakin Balentziak olerkian. Urtebete geroago, Juanjo Olasagarre izan zen olerkigintzan lehena, eta narrazio laburrean, berriz, Manolo Fontalba.

1993. urtean, Juantxo Urdirozen izena agertu zen lehen aldiz narrazio laburreko saileko irabazleen artean. Urte berean, Josetxo Azkonak irabazi zuen olerkigintzan. 1993koa, dena den, ez zen Juantxo Urdirozek irabazi zuen urte bakarra izan, hurrengoan narrazio laburrean eta olerkigintzan izan baitzen lehena, bai eta narrazio laburrean 1995ean. Urte horretan, Juan Kruz Lakasta lankidea bigarrena izan zen sail berean, eta, iaz, berriz, lehena Zazpi su gorri idazlanarekin. Horiek ezezik, beste izen asko eman ditu Udalaren lehiaketak.

Gora-beherak ere ugariak izan dira lehiaketaren hamabi urteko ibilbidean, komikien alorrean, batez ere. 1992. urtean, adibidez, lehiaketa bertan behera gelditu zen, 1991. urtean Udalak aurreko urteko komiki sarituaren argitalpena bahitu zuelako, «biluziak agertzen zirelako», gogoratu


Iruñeko Udalak Egile Berrientzako Literatur Lehiaketan parte hartzeko deialdia egin die jada Nafarroako eta Nafarroan bizi diren idazleei. Hamabigarren ekitaldia izanen da aurtengoa. Azken bi ekitaldietako lan sarituak biltzen dituzten liburukiak, gainera, kalean dira, Udalak aterata. Horrekin batera, Nafarroako Antzerki Eskolarekin antolatzen duen Umeentzako Antzerki Testuen Lehiaketako azken hiru urteetako lan irabazleak kaleratu ditu Udalak, hirurak Xabier Diaz Esarterenak.

## Egile berrientzako literatur lehiaketak

(1996)

☛ Saritutako lanak ☛

Narrazio laburra • Olerkia • Bertso Paperak



Iazko Egile Berrientzako Literatur Lehiaketako lan sarituak biltzen dituen liburua.

## Hamabigarren ekitaldia aurtan

AURTENGO Egile Berrientzako Literatur Lehiaketan parte hartzeko deialdia zabalik dago jada. Iruñeko Udalak, gainera, inoiz baino diru gehiago banatuko du saritan, 1.620.000 pezeta guttura (64.800 libera). Azken urtean bezala, lau sail izanen ditu lehiaketak, narrazio laburra, olerkia, bertso-paperak eta komikia, alegia.

Parte hartu ahal izateko Iruñeko Udalak, urtero legez, hainbat baldintza zehaztu ditu aurtengo deialdian. Egileek, hasteko, Nafarroan izan behar dute helbidea, hau da, nafarrak izan edo Nafarroan bizi behar dute. Idazlanei dagokionez, gaia librea izanen da, eta euskaraz idatzita egon behar dute. Halaber,

jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan behar dute lanek. Bere izenarekin literatur edukiko obrak argitaratu dituen egileak, ezin izanen du lehiaketan parte hartu.

Lanen luzera ezberdina izanen da sail bakoitzean. Olerkigintzari dagokionez, idazlanek gutxienez hamabost orrialde eta gehienez 25 izan behar dute, biko tartearrekin eta paperaren alde batetik idatzita. Narrazio laburreko sailean, 15 orrialdekoa izanen da gutxienezko luzera, eta 40koa, berriz, gehienezkoa. Sail honetan ere, biko tartearrekin eta paperaren alde batetik idatzita aurkeztu behar dira lanak.

Bertso-paperetan, bestalde, 25 bertso-

ahapaldi idatzi behar dira gutxienez, eta 40 gehienez. Elkarrekin oro har lotura duten hainbat gai erabil daitezke, beti ere bertso-laritzaren arau formalak betez. Komikien sailean, azkenik, DIN A4 tamainan aurkeztu behar dira lanak, edota proportzio horiek betetzen dituen beste formatoren batean. Koloretan eginez gero, bost orrialde aurkeztu behar dira gutxienez, eta zazpi gehienez; txuri-beltzean, berriz, bost gutxienez eta hamabi gehienez. Lanak, sail guztietakoak, Iruñeko Udaleko Erregistro Ofizialean aurkeztu behar dira, urriaren 31n beranduenez.

Lan guztien artean irabazleak aukeratu dituen epaimahaiari dagokionez, Iruñeko Udalak izendatuko du,

eta bost pertsonak osatuko dute: epaimahaiako buruak eta lehiaketako gaietan aditu diren beste lau lagunek. Horieta hiru Nafar Ateneoak, Euskaltzaindiak eta Nafarroako Bertsolarien Lagunak elkarrekin proposatuak izanen dira, eta laugarrena, Udalak berak izendatua, komikietan aditua izango da.

Sail bakoitzean, hain zuzen, hiru sari banatuko ditu Udalak, 200.000 pezetakoa lehenengoa (8.000 libera), 120.000 pezetakoa bigarrena (4.800 libera), eta 60.000koa hirugarrena (2.400 libera). Epaimahaiak, halaber, lau aipamen egiteko aukera izanen du. Horieta bakoitzak 25.000 pezeta jasoko ditu. (1.000 libera).

du Iñaki Azkonak. Eta argitalpena bahitu ezezik, komikien alorra lehiaketatik desagertarazi zuen. Iaz berriz ezarri zuten, eta aurtengo deialdian ere badago komikia.

Gora-behera guztiekien ere, Egile Berrientzako Literatur Lehiaketari buruz hitz egitean pozik ageri da Iñaki Azkona Udaleko Euskara teknikaria, eta balantzea «oso positiboa» dela azpimarratu du. «Xalbador saria desagertu zenetik, gainera, lehiaketa bakarra da euskaraz. Baina lehiaketa mugatua da, egile berrientzako antolatu dugulako, beraz, ez du balio bakarra izateko. Gaur egun, idazle kontsagratuek ez dute beren lanak aurkezteko inolako lehiaketarik».

Iñaki Azkonak dioenez, Udalaren lehiaketa bultzada garrantzitsua izan da gazte askorentzat. Eta horietako asko, gainera, oso ezagunak dira gaur egun, «ez lehiaketatik, baina lehiaketa euren nahiaren ispiru izan da, eta hori oso pozgarria da», esan du.

Iñaki Azkonak, halaber, lehiaketan parte hartzen duten gazte askoren lanen kalitatea nabarmendu du: «Denetarik dago, noski, baina badira oso lan on eta biribilak. Lehiaketak, gainera, gutxienezko baldintza batzuk ezartzen ditu, eta lana eskatzen du. Lan askoren atzetik literatur nahi sakona dagoela nabaritzen da».

### Zazpi liburukik osatu

**bilduma** • Udalaren lehiaketaren beste ezaugarri bat lan sarituen argitalpena izan da urte hauetan guztietan. Hasierako urteetan Pamiela argitaletxeak hartu zuen bere gain ardura hori, Nafarroako Gobernuarekin egin hitzarmenaren bidez. Pamielak literatur lanak argitaratzen zituen, eta Udalak, berriz, komikien alorrekoak.

Nafarroako Gobernuaren eta Pamielaren arteko hitzarmena bertan behera gelditu zenean, Iruñeko Udalak hartu behar izan zuen bere gain lanak argitaratu emateko ardura. Iaz, hain zuzen, 1988tik 1994ra bitarteko lanak plazaratu zituen Iruñeko Udalak, lau liburukitan: Bertso-paperekin bat, olerkiekin beste bat, eta bi narrazio laburren saileko lanekin.

Aurtan, berriz, 1995eko eta 1996ko lehiaketetako lanak eman ditu argitaratu, bi liburukitan. Halaber, Nafarroako Antzerki Eskolarekin batera antolatzen duen Umeentzako Antzerki Testuen Lehiaketako lan sarituak kaleratu ditu. Azken hiru urteetako idazlanak bildu ditu liburu bakar batean, Xabier Diaz Esarteren *Tatxan, tatxan, tatxan, Tarzan, Astronauta galaktikoak edo ez da ipuin ipuin dirudien oro eta Ez geratu jokoz kanpo antzerki testuak, alegia*. Denetara, beraz, zazpi liburukik osatutako bilduma plazaratu du Udalak, eta, Iñaki Azkonak azpimarratu duenez, «oso harrera ona izan du». X

◆ Jose Ortega ◆ Nafarroako Jaialdietako zuzendaria

# «Egoitza bakarria nahi dugu Jaialdientzat»

**N**afarroako Jaialdiak etzi hasiko dira Iruñean, Madagaskarko Tarika taldearen aktuzioarekin. Jaialdiek mundu zabaleko musiken aldeko apustua egin dute dagoeneko, baina baliteke datozen urteotan garrantzizko aldaketak egotea, Kultura Sailak jaialdien iraupena laburtzea eta egoitza bakarria izatea proposatu baitu. Gainera, zuzendari artistiko baten bila dabilta edukiak eta programa koordinatzeko. Azken hitza arduradun politikoei izango dute.

Ana Unanue / Iruñea

■ **Nafarroako Jaialdiez gogoeta egin behar zela esan zenuten duela bi urte. Trantsizio denbora honetan, zer ondorio atera dituzue?**

Trantsizio urtea 1995a izan zen. Hurrengo urtean, 1996an, oso programa zehatza prestatu genuen, ardatz bezala mundu zabaleko musikak hartuta. Aurreneko aldiz, gai bakar baten inguruan antolatu genituen Jaialdiak, kultur aniztasunaren ideian oinarrituta. Trantsizio urtea baino gehiago esperimendazio urtea izan zen iazkoa. Egitaraua erabat aldatuta jendeak nola erantzuten zuen jakin nahi genuen. Eta uste dut asmatu egin genuela. Jendeak oso ongi erantzuten zuen eta, gainera, publiko berria, jende gazteagoa, sartu zela nabaritu genuen. Ia aktuzio guztiak lepo bete ziren.

■ **Orduan, Jaialdiak horrela gedituko dira betiko, mundu zabaleko soinuekin?**

Gure asmoa bide beretik jarraitzea da. Aurten literatura, zinema eta musikei berriei buruzko zikloak gehitu ditugu, baina betiere ideia beraren inguruan. Musika berrien zikloan, esate baterako, tradizioan errotutako abangoardiako musikariak ariko dira. Aurrerantzean ere aniztasuna, kultura desberdinekiko errespetua eta tolerantzia izango da Jaialdien ardatza, baina edukiak dibersifikatu nahi ditugu. Ideia berari eutsiz, musika baino zerbait gehiago eskaini nahi dugu.

■ **Eta ez da laster pasatuko musika etnikoaren moda?**

Jaialdietan ez dugu musika et-

nikoa soilik eskaintzen. Egia da egitarauaren % 80k baduela halako kutsu etnikoa, baina Enrique Morente edo Madreusek egiten dutena ez da musika etnikoa, abangoardiako esperimendazioa baizik. Gainera, musika etnikoa modan badago, zerbaitengatik izango da. Garaiak aldatu egin dira, eta garai haiek dibertsitate dute ezaugarri nagusi. Horregatik, Administrazioetik ezin dugu uniformetasunera, kultura bakarrera, jo. Egokiagoa iruditzen zaigu dibertsitatearen ideia.


■ **Askotan esan izan da Nafarroako Jaialdiek ez dutela berezko nortasunik. Zergatik?**

Jaialdiek urteen poderioz lortzen dute nortasuna, gaiak eta edukiak zehazten dituzten neurrian. Nortasun propioa lortzeko ere oso garrantzitsua da toki aproposa edukitzea. Hastapentean, Nafarroako Jaialdiek asmatu zuten horretan. Erriberriko egoitzak nortasun handia ematen zien, eta sortzaileen partehartzearen aldeko apustua egin zen. Lehendabiziko urteetan abangoardiako jaialdiak izan ziren, punta-puntako artistak etortzen ziren. Jaialdiek orduan izan zuten definizio handiena. Gero egoitza eta diziplina gehiago jarri zituzten, eta nortasuna galtzen joan ziren. Errematea Erriberriko egoitza kentzea izan zen.

■ **Hutsegitea izan zen?**

Alde batetik bai, Jaialdiek irudia eta nortasuna galdu zutelako. Erriberri enblematikoa da, eta han egiten den edozein ekitaldik balio erantsi bat dauka.

■ **Aurten Tuterako egoitza kendu duzue. Besta lauak (Iruñea, Lizarra, Zangoza eta Altsasu) betiko gedituko dira?**



Jose Ortega Nafarroako Gobernuako Kultur Ekintzetarako zerbitzburua da.

OSKAR MONTERO

Gure ideia egoitza bakarrera jotzea da. Nafarroako Jaialdiak zentratzea proposatu dugu, eta ez edukietan bakarrik. Egoitzak eta iraupena ere mugatu nahi ditugu. Jaialdiei nortasuna emango dien espazio bakar bat egotea, hori da gura ideia. Egoitza bakarrarena proposamen teknikoa da, baina azken erabakia politikoen esku dago. Tuterako egoitzaren inguruan izan den polemikari esker, norbaitek mozio bat aurkeztu zuen Nafarroako Parlamentuan, eta parlamentarioek Jaialdiez

eztabaidu dute. Ona da politikoa Jaialdiek duten garrantziaz jabetzea, azken hitza haiek izango dute eta.

■ **Zein izan liteke Jaialdien egoitza bakarria? Atzera Erriberri?**

Irizpideen arabera. Toki enblematiko bat nahi badugu, Erriberri edo antzeko beste lekuren bat izan liteke. Jende kopuruari erreparatzen badiogu, berriz, Iruñea izango litzateke. Nafarroako Jaialdietako publikoa Iruñean dago eta. Hori garbi ikusi dugu urtetik urtera.

s o s l a i a

Jose Ortega, 49 urtekoa, Errioxan jaio zen, baina urte asko eman ditu Nafarroan. Gaur egun Nafarroako Gobernuako Kultur Ekintzetarako Zerbitzuko zuzendaria da. Hori dela eta, Nafarroako Jaialdiak antolatzea tokatu zaio azken bi urteetan. Berak nahago luke zuzendari artistikoa behar dutela uste baitu.

■ **Nafarroako Jaialdiek 62 milioi pezetako aurrekontua dute aurten. Hori kultur ekitaldietarako aurrekontu osoaren %20-30 inguru da. Diru gehiagorekin jaialdi hobek egingo litzateke uste izan arren, dagoenarekin ere jaialdi onak egin daitezkeela aitortzen du Ortega.**

■ **Atzerriko talde gehienak uztailean ibili ohi dira Europa aldean. Nafarroako Jaialdiak abuztuan direnez, antolatzaileek zailtasunak izaten dituzte nahi dituzten taldeak ekartzeko, ghe-nak joanak dira eta.**

■ **Nola antolatzen dituzue Jaialdiak? Badago zuzendaritza artistikorik?**

Ez, eta behar dute. Zuzendari artistikoaren bila gabilta, abiapuntutzat aniztasunaren ideia hartuta edukiak eta programa berak erabaki ditzen. Gabezia hori hor dago. Orain arte aholkulariekin, hainbat aditurekin, moldatu gara. Aurtengo zikloetarako, adibidez, Jesus Ferrerori, Ramon Trececi eta Alberto Lenari eskatu diegu laguntza. x

«Nafarroako Jaialdietako publikoa Iruñean dago. Hori garbi ikusi dugu urtetik urtera»

